

# Gaibek kale

Elgetako aldeakaria uztaila 70ek.

FERMIN IRIBAR  
SAN ROKE 36-1



**Bost, lau, hiru, bi,  
bat: grabatzen**

*Maderas Gallastegi, s. a.*

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrió (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxa: 94 6583061.

**EH Elgetako Udaleko Gobernu batzordean?**

Su etena amaitu zenetik EAJ/EA eta EHk zuten akordioak EAEko udal gehienetan apurtzen joan ziren, denok dakizkigun arrazoiengatik. Elgetako udalean EAJ/EA taldekook aukera aztertu genuen, baina ordura arte bezala jarraitzearen aldeko apostua egin genuen. Elkarlanaren aldeko apostua eginez eta dauzkagun diferentziak gaindituz.

Ekainaren Sean Udal osoko bildura, plenoa, izan genuen, besteak beste 2001. urteko aurrekontuak onartzeko, aspalditik genbiltzan aurrekontuak onartu nahian. Batzorde bakoitzeko proposamenak jaso eta gero, zailtasun handiak genituen batzordeetako eskaerak betetzeko, Elgetako udalaren errekurtsio murriztak ezagututa.

Plenoa egin baino 10 bat egun lehenago EHkoei eman genien aurrekontuen azken zirriborroa, esanez zerbait komentatzerik egonez gero udaletxera joan besterik ez zutela alkatearekin hitz egiteko. Ez ziren hurbildu udaletxera ezer galdetzera, ezta argibideen bila ere. Plenoan aurrekontuak bozkatzerakoan, gure harridularako ezezko botoa eman zuten, lau arrazoi azalduz (esan beharra dago plenoan azalduetako arrazoiak eta Goibekokalen edota Goiengkarian agertutakoak ez direla berdinak) guk plenoan esandakoak jarraituko ditugu:

- 1 Aurrekontuak egiteko modua ez da partizipatiboa izan.
- 2 Bilerarik egin ez delako, EHko taldearekin, adostasun batera ailegatzeko.
- 3 EHk zuzentzen dituzten batzordeen iritziak aurrekontuetan kontuan izateko, kontuan hartu ez direlako.

4 Udalbiltzarentzat

aurrekontuen 0,17 dedikatzen delako eta ez %1a.

Lehenengo puntuari erantzunez, esan beharra dago Elgetako batzorde informatzaileak irekiak direla, hau da edozein joan daiteke, deialdiak publikoki zabaltzen dira eta aurrekontuak bertan eztabaidatu eta bertatik egiten dira proposamenak. Hau ez bada modu partizipatiboa!

Bigarren puntuari dagokionez, aurrekontuen zirriborroa eskatutako epean banatu zen, esanez prest geundela aprotazioak edota zalantzez berba egiteko. EHko zinegotziak elkar-tu ziren alkatearekin, baina aipamenik egin gabe aurrekontuei buruz.

Hirugarren puntuari dagokiona, EHko batzordeen iritziak ez direla kontuan izan, batzorde guztietako proposamen mordoak kanpoan gelditu behar izan dira, Udalaren errekurtsioak urriak direlako.

Laugarren, Udalbiltzari buruz, ez zuten ezer esan, ez genuen proposamenik jaso, eta zail-zaila da ezteza ematea jasotzen ez den proposamen bati.

Hau dena ikusirik eta herriko jaietako hainbat ekitaldi inguruan entzun duguna entzunda (jai programaren aurkezpena edota irrati saioan) zer egin?

166 milioiko aurrekontua du udalak eta jaietarako 5.727.000pta dedikatu dira (Sutargi dantza ekitaldia gastuak kontuan hartu barik), adibidez, inbertsio eta guzti kiroletan urte osoan gastatu behar dena baino diru gehiago langilearen soldata kenduta. Ez da nahikoa? Gure ustez bai.

Jakina da ez garela udal aberatsa, batzorde guztietatik jasotzen diren proposamen mordoak kanpoan gelditzen dira, dirurik ez baitago. Gure ustez

Gobernuan egoteak ardura batzuz dauzka eta baita konprometzuak ere. Eta horietako bat aurrekontuak onartzea da.

Gure ustez EHko zinegotziak Gobernuan baino gehiago oposizioan daude; eta hori, oposizioana egitea bidezkoa da, legitimoa da, baina beste modu batera.

Hau dena ikusirik EH koalizioa Gobernu batzordetik kanpo geldituko da Elgetako Udalean, nahi badute aukera izango dute dituzten batzordeetako buruetan jarraitzeko, berriz ere elkarlanerako gure borondatea erakutsiz, baina Gobernu batzordetik kanpo.

Elgetako EAJ/EA zinegotziak

**Jai batzordeak herriari**

Egun hauetan prentsan EH gobernutik kanpo geratu dela esanez agertu diren berriak direla eta honokoa agertu gura dugu jai batzordearen izenean:

- 1 Harridura azaldu gura dugu prentsan agertutako berriagatik, EAJK adierazitakoa harroa, faltsua eta intentzio txarrekoa da eta.
- 2 Jai batzordea EHren eskutan dagoela ukazina bada ere, ez da gezurra, halaber, jai batzordea osatzen dugunok kolore, pentsakera eta izate ezberdinetakoak garela. Batzordea irekia da eta edonork har lezake parte. Helburua, bat eta bakarra: jaiak antolatzeko. Edo, norbaitek ikusi du horrela, ez dela pentsatzeko moduko zerbait?

Norbanakoak zein elkarrekin (Gaztetxea, dantza taldea, guraso elkarte, elkarte gastronomikoak...) politika alde batera dagoela adierazten dute eta gure lana jaiak antolatu eta gozatzera mugatzen dela ziurtatu genezake lerro hauekin zein egidako ekintzekin.

3 Badirudi, badela pertsonaren bat interes bereziarekin jaietako aurkezpena esandakoa nahastu diharduena. Bide batez, gomendatuko genioke hiztegi eder bat jaien aurkezpena esandakoa ondo itzuli eta uler dezan.

Inoiz ez gara kexatu diru gutxi edo asko izanagatik. Aipatu, aipatu da orain arteko mailari eutsi gura badiogu diru gehiago jarri beharko dela jaietako politas. Denok dakigu espetakuluok zenbat balio duten. Hobeto esan daiteke, baina ez argiago.

4 Alkate jaunarekin oso haserre gaudela ere adierazi gura dugu. Guk urtarriletik lanean jardun dugun bitartean, eztabaidatzen, adostasunetara heltzen... Alkate jaunak ez du asmorik ere erakutsi bileretara etortzeko, eta gainera, ez etortzea gutxi balitz, batzordearen iritzia kontuan izan barik aldaketak egin zituen egitarauan. Uste dugu lanean gabiltzanok, pertsonak merezi duten errespetuaz gain egindako borondate lanarengatik ez bada ere horrelako gaiak batzordean bertan azaldu eta erabakitzea merezi dutela. 5 Ez nahastu guk egindako lana politika gaiekin. Ez dakigu ondo edo gaizki, baina gu saiatzen gara jaiak aurrera ateratzen eta esan beharrik ere ez dago zuek eta edozein herritarrek ateak zabalik dituela gurekin batera lan egiteko, beti ere "jaiak" gai nagusizat hartuta. Horregatik eskatzen dizuegu nahita egindako nahasketarik ez sortzea horrelako gaiekin. Ez dugu uste gertatuko denik, baina horrela egitea gura bazenute gustora gonbidatuko genizueke eztabaida publiko bat egitera jaiak dagokien edozein kontu argitze aldera, dagoeneko argi geratu ez badira.

Jai batzordea

# ESTAMPACIONES INTXORTA S.A.



AENOR

ER

Empresa Registrada

ER-07142/96

Betsaide poligonoa 2-B. lur saila. Pabilioi zk.: B9- B12. Posta Kutxa 106 48230 Elorrixa

Tel.: 94 6231914 Faxa.: 94 6231928

# Azken momentuan, irailera arte atzeratu du EAJ/EA-ak, EH Gobernu batzordetik kanporatzeko erabakia

Uztailak 19an EAJ/EA-ak Gobernu batzordetik kanporatzen zuela adierazi zion EH-ri. Kanporatzeko arrazoi nagusia, osoko bilkuran EH-ek, udal aurrekontuei ezetza eman izana. EH-ek Gobernu Batzordean jarraitu asmoz, proposamen bat egin dio EAJ/EA-ri. Bi alderdiek adierazi digutenez, irailera arte atzeratu da erabakia. Momentuz, aste honetan bertan egin den Gobernu batzordean parte hartuko du EH-ek. Hala ere irailera kanpoan geratu daiteke oraindik. EH kanporatu ezker, lehenengo aldia izango da, talde politiko bat Udaletxeko Gobernu batzordetik kanpo geratzen dena.

Iñaki Ugartebururen esanetan, gobernu lana egin beharrean oposizioa egiteak eraman du EAJ/EA, EH kanporatzeko erabakia aztertzer, "EH kanporatzeko arrazoi nagusia udal aurrekontuei ezetza ematea da. Eurek esandako epean, gutxi gora behera, eman zitzaizen aurrekontuen borradorea, osoko bilkura baino hamar hamaika egun lehenago. Bilkura baino lehen alkatearekin batu arren, ez zio-

ten aurrekontuen inguruan ezer komentatu. Bilkuran, aurrekontuen aurka bozkatzeko lau arrazoi eman zituzten, ez zirela modu parte hartzailean egin, ez zela EHko taldearekin bilerarik egin adostasun batera heltzeko, beraien batzordetako proposamenak ez zirela kontuan hartu, Udalbiltzarentzat aurrekontuen %0,17 emango dela, eta ez zela kontuan hartu beraien proposatutako %1a". EAJ/EA-ak aurka bozkatzeko arrazoi hauei erantzuna eman zien, "Gobernuan parte daukan talde batek aurrekontuen aurka azaltzea ulertezina dela esan genien, emandako arrazoiei erantzunez. Esan behar da, batzorde denetan eztabaidatu dela aurrekontua, hauek irekiak dira, nahi duenak parte hartzeko. Aurrekontuen borradorea aztertzeke epean, ez da eragozpenik eta aportaziorik jaso, Udalbiltzarako aurrekontuen %1a bideratzeko proposama adibidez, ez genuen bilkura aurretik jaso".

EAJ/EA-ren esanetan "jaietako auzkezpean egindako diskurtsoa eta beste zenbait lekutan




**Ez dago argi EHek Gobernu batzordean jarraituko duen ala ez.**

entzundakoak ere badira EH oposizioa egiten ari zenaren seinale".

Sebastian Arantzabalen esan digunez, bi alderdiek, aurrekontuak batera aurrera ateratzeko gai ez izatea izan da, Gobernu batzordearen banatzea ekarri dezakena. "Guk gure arrazoiak genituen aurrekontuei ezetza emateko, gainera gurekin kontrastatu gabe egindako aurrekontuei, nola esango diegu baietza besterik gabe. Bi aldeon aldetik akatsa egon dela uste dut, osoko bilkura aurretik, ez bait gara batu aurrekontuen inguruan eztabaidatzeko. Jaiet dagokienean, hartu diren erabakiak jai batzordeak hartu ditu, gai

hauek nahasteak ez dauka zentzu askorik". EHren asmoa Gobernu batzordean eta batzordeekin jarraitzea da. Horretarako proposamena egin die EAJ/EA-koei. "Batzorde, Gobernu batzorde eta alkatearen arteko funtzionamenduari buruzko akordio minimoak lortzea. Datozen aurrekontuak egiteko orduan, alderdion artean dauden kontraesanak mahai gainean jartzeko, aurretik metodologia zehaztea eta Gobernu batzordean jarraitzeko aukera izatea dira guk egindako proposamenaren oinarriak". Irailean jakingo dugu EH-ek Gobernu batzordean jarraitzen duen ala ez.

Argitaratzen honen edizioa laguntzaileak  
En la edición de esta publicación colabora:



**kutxa**  
zuri esker  
gracias a ti



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura sailak diruz  
lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek  
Elgetako Udalaren  
laguntza jaso du



**Goibeko**  
k.e.  
Tel.: 943 78 90 85  
Salbador 2, Kultur Fixea  
goibeko@topagunea.com

Aldizkari honen  
argitaratzailea



Gipuzkoako foru  
aldundiak diruz  
lagundutako aldizkaria

GOIBEKOKALE

**Argitaratzailea:** Goibeko K. E. Salbador kalea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Oxel Erostarbe, Bittor Gallastegi eta Igor Arizmendiarieta. **Erredaktoreak:** Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza. **Publizistak:** Oihana Sarasua eta Esti Askasibar (Tel.: 943789085). **Banaketa:** M. Elena Eztenaga, Ikastola. Tirada: 700 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538. **E-mail:** goibeko@topagunea.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

# Jon Anduezak Elgetan grabatu du Aita Guria film laburra

Lagunen artean eginagatik film profesionala egin dute

Arrasaten jaio arren, gustora bizi da Elgetan Jon Andueza. Horregatik, eta herriko paraje ederrek aukera eskaintzen dutelako errodatu du Aita Guria filma Elgetan. Aitorpen sakratua dela eta abade batek dituen gora beherak dira filmaren muina. Urri edo azaro alderako filma editatuta egotea espero du Jonek, Elgetan estreinatuko da seguruenik.

Uztailak 13 eta 20 artean, Aita Guria laburmetraia errodatu da Elgetan. Jon Anduezak egiten duen hirugarren film laburra da. Lehenago

Laugarren Galeriatik eta Bernar laburmetraiak eginak ditu. Aita Guria lagun arteko kontua izan da Jonen esanetan, era berean filman parte hartu duten aktore eta tekniko-en maila haundia izan da. Hego Haizea films S.L. arduratu da produkzioaz eta lan bikaina egin duela ezin ukatu. Filman parte hartzen duten akto-reetako batzuk ezagunak ditugu: Hasiberriak tele-sailean parte hartzen duten, Martxelo Rubio, Oihana Maritorea, Gorka Igartua eta Mikel Antero, esaterako. Alicia Otxoa, Jon Zubiaga eta Josema Langaranek ere



Hego haizea films SL-koak arduratuko dira produkzioaz Anduezak zuzendutako filman

aktore lanak bete dituzte. Gidoia egin eta filma zuzentzeaz gain, antzetzu ere egin du Jonek. Aita

Gurian Iban Arantzabal elgetarrak ere hartu du parte. Urri edo azaroko filma editatua egongo da.

## Etxebizitzen gaineko galdeketa entregatzeko epea bukatzeaz

Uztailaren 31n amaituko da, udaletxeak kaleratutako etxebizitzetarako buruzko galdeketa aurkezteko epea. Herrian etxebizitza gehiago eraikitzeke beha-

rrik dagoen aztertzeke eraman du Udaletxeak aurrera galdeketa hau. Galdeketa herriko etxe eta lantegietara banatu ondoren, 16 lagun inguruk

erantzun dute. Gehienak herriko gazteak dira, 20-30 urte bitartekoak. Galdeketa bete duten zazpi lagun ordea kanpokoak dira. Eskaeren artean, gehien-

goari babes ofizialeko etxebizitzak interesatzen zaizkio, hala ere badaude bestelako etxebizitzak interesatzen zaizkien pertsonak ere.

GRUPO  
**IFA**  
Produkturik onenak,  
prezio onenean  
Tel:  
76 80 98.  
**ALDI**

Andoni Bolinaga  
METALAK  
FS7 18  
Tel - Fax 76 80 64  
ELGETA

## Irailean jabe berriak Polikiroldegian

Hasiera batean, ez zen inor aurkeztu, kiroldegia, pilotalekua eta Bola-Toki taberna alokatzeko. Informazio bila Arrasateko Uarkape frontoian lanean aritutakoak eta kirol eta kultura ekintzak antolatzen dituen Garapen Proiektua enpresa etorri ziren. Enpresa honek interesa zuen arren, ez zuen jenderik bertan lan egiteko. Jendea Uarkape jarri du. Udaletxeak harremanetan jarri ditu interesa azaldu zuten bi aldeak eta momentu honetan emanketa negoziatzen ari dira. Emanketan dagoen arazo

bakarra, tabernan behar diren sukaldeko elektratresna, mahai etab. ak nork jarri behar dituen da. Udaletxeak jarriko du behar diren materialak, honek noski igoera ekarriko duelarik alokairuan. Frontoiari dagokionean, oinarritzko garbiketa jabe berrien esku geratuko da eta gestioa Udaletxeak eramango du. Udaletxea eta Garapen Proiektua enpresa akordio batera iritear daude. Irailetik aurrera, Polikiroldegia jabe berriak izango dituela, zihurra dela aurreratutako dezakegu.

## Euskal Selektzioaren aldeko martxa uztailak 31n iritsiko da Elgetara

Esait-ek Mendi Martxa antolatu du abuztuari gogotsu ekiteko. Mendi Martxa Trebiñon irtengo da uztailaren 28an eta Uztaritzen emango zaio bukaera abuztuak 6an. Bederatzi egunetan Euskal Herri osoa zeharkatuko du martxak. Uztailak 31an, Aspe eta Elgeta artean izango da ibilialdia. Elgetara arratsalde aldera iritsiko dira mendizaleak. Helmuga diren herrietan ekintzak izango dira. Elgetan izango direnak guztiz zehaztuta ez dau-

den arren, mendiari buruzko proiektioa izango dela baieztatu digute Esaitçeko kideek. Ozkarbin afaria antolatzeko asmoa ere badago. Kontuan izan behar dugu, euskal selektzioaren aldeko martxan parte hartzen duten mendizaleek gimnasioan egingo dutela lo, hurrengo egunean autobusez iparralderantz abiatzeko. Mendi martxan ize-na emateko aukera badaogo oraindik, horretarako 943 491626 telefonora deitu besterik ez dago.

## Eguneroko zereginetan euskara erabiltzeko kanpaina bultzatzen dihardu GOIBEKOK

Goibeko Kultura Elkarteak, euskararen erabilpena eguneroko zereginetan erabiltzeko kanpaina jarri du martxan. Kanpaina hau, Debagoineko beste euskara elkarteekin batera eramango du aurrera, elkarte hauek sortutako Debagune elkartearen bidez.

Elkarteko bazkideei etxera bidaliko zaien gida batzuen bidez, eguneroko zereginetan euskara erabiltzeko eman beharreko pausuak

azalduko dira. Telefonoko ongi etorri mezua euskaraz grabatzeko, kutxazain automatikoak ematen dizkigun oharrak euskaraz emateko, udal zergak, telefono fakturak... euskaraz jasotzeko, errenta aitortpena euskaraz egiteko eta beste zenbait zereginetan euskara erabiltzeko dauden aukerak azaltzen dira gidan.

Goibeko Kultura Elkarteak aurrera darrai bere zereginetan, euskara kanpaina honekin batera, tele-

matika arloa ere lantzen ari dira. Goibekokale eta Goienkaria argitaratzen eta Goiena Telebista Elgetan ikusteko pausuak eman dira. Espalioa Kafe Antzokiaren proiektuan ere irailerako gauzak argituko dira. Elkarteak 120 bazkide inguru-iaz baino gehiago lortu ditu momentuz. Oraindik badago bazkide egiteko aukera, 943.78.90.85 telefonora deituta. Kanpaina hau bazkideei bakarrik zuzendua dago



**IÑAKI JATETXEA**

Leku paregabea,  
eguneko menua  
Tel: 943 76 82 83



**OSTATU JATETXEA**

Gudarien Bide  
Tel: 76 80 23  
ELGETA

Eguneko menua 800 pzta.  
Karta.

## Salbador jaietarako dena antolatuta

Aurtengo Salbador jaien antolaketa ia egina dago. Abuztuaren 5ean, Salbador bezperan, eguerdiko 13:00etan arbola igoyerarekin emango zaio hasiera jaiari. Gauean berriz, musika izango da.

Abuztuaren 6an, Salbador egunez, txapliguak botako dira goizeko 11:30etan. Eguerdiko 12:00etan meza izango da Salbadorren bertan eta ondoren salda eta pintxoak banatuko dira. Eguerdian bazkari herrikoia egingo da 14:30etan Panaerokua jatetxean. Bazkarirako txartelak jasotzeko, Haizea, Patxi edo Panaerokua tabernetara zuzendu beharko da.

**A r r a t s a l d e k o** 17:00etan, umeentzako jolasak izango dira eta ondoren, Salbador-Salbador klasika ospatuko da. Bai umeek eta bai nagusiek izango dute txinrrindulari lasterketan parte hartzeko aukera. Arratsaldeko 17:30etan, bolo txapelketa ospatuko da Salbadorren bertan eta ondoren poteo herrikoia izango da soinujoleekin. Gauean afari herrikoia izango da eta 23:00etatik aurrera, Bigira taldearekin, goizaldera arteko erromeria da. Goizaldean txokolatea banatuko da jaiari bukaera ezinhobea emateko asmoz. ONDO PASAU SALBADOR JAIXAK!!!!



*Aurten ez dute taularik jarriko Salbador jaietan. Hala ere, jizango da zer ikusi: bolo jokua, meza, erromeria, afari herrikoia...*

## Abade berria etorriko da irailean

Oraindik ez dute izendatu nor izango den elgetar berria

Bost urtean parrokiari lan egin eta gero, Jose Luis Aperribai abadeak Elgeta utzi eta Hernanirako bidea hartuko du irailean. Esan digunez, oso gustura egon da Elgetan, "Politika eta ekonomia aldetik, herria trankil egoteak eta herri txikia izateak, kale lana eta

jendearekiko harremanak errazten ditu, eroso egon naiz Elgetan, oso gustora". Elgetan egindako urteetaz balorazio baikorra egin ondoren etorkizuerako egin beharrekoak aipatu ditu "Alde batetik haur eta gazteen artean lan handia dago egiteko, elkarbi-

zitzako baloreak, ekintza bidez landu eta suspertuz. Bestetik, elizan egindako lanak daude, erritmo geldoan joan diren arren, batzuk bukatu dira eta beste batzuei irtenbidea bilatu beharko zaie.

Abade berririk etorriko ez dela zabaldu

bada ere, guztiz gezurtatu du hau Jose Luisek "Abade berria etorriko dela ziurra da. Oraindik ez dago izendatua eta ez dakigu haren berri. Abade berria nor izango den ezagutzen dudanean, berarekin egongo naiz, informazioa emateko".

### ZABALA

Lasao 6 Elgeta  
Tel: 768075-6 768225  
Faxa: 768201



### HERMANOS S.A.

EHIZARAKO  
ESKOPETA EGILEA

# Eguzkitza Azpikoa baserria erreta

Uztailak 19an, eguerdiko 13:30ak aldera, Angiozarrera bidean dagoen Eguzkitza Azpikoa baserria guztiz erre zuen suak. Ganbaran piztu zen suak, baserri osoa kiskalita utzi zuen. Felix Garai baserriaren nagusia, ohartu zen baserria erretzen zegoela. Familiakoak eta kortan zeuden animaliak baserritik atera besterik ezin izan zuen egin. Suhiltzaileek ere ezin izan zuten ezer egin, suaren ondorioz baserria erabat kiskalita geratu zen.



*Erabat erre zen baserria. Hurrengo egunean ere piztu zen berriro sua.*

## Udaletxeko bulego zerbitzua abuztuan

Abuztuaren lehenengo hiru egunetan bulegoa eguerdiko 13:00 arte irekita egongo da. Abuztuaren 4tik aurrera berri, bulegoa itxita egongo da. Hala ere, administratzailea bertan egongo denez, telefonoz egin daitezkeen lanak egiteko aukera izango da.

## Liburutegia, Polikiroldegia eta sendagilearen zerbitzuak abuztuan

Liburutegia abuztu guztian itxita egongo da. Polikiroldegia berri, abuztuaren 6an itxiko da eta ez dago jakiterik noiz zabalduko den, ez dago-eta argi norbaitek kargua hartuko duen ala ez. Sendagilearen zerbitzuak berdin jarraituko du nahiz eta bera bertan egon ez.

# Hainbat ekintza uztaileko udalekuetan

Aurten ere, urtero bezala, umeendako ekintza desberdinak aurkeztu dira uztaile-rako. Aurkeztutako ekintzetatik aurrera

eraman direnak, multi-kirola, aisialdia eta pilota izan dira. Multi-kirolean apuntatutakoak 14 ume izan dira, aisialdian beste hain-

beste eta pilotan 6. Aurkeztutako beste ekintzak ezin izan dira aurrera eraman gutxi izan direlako apuntatu direnak.

# Forjanorreko langileak lanera, PRECOAK arrazoia emango dienaren zain

Uztailaren 5etik, Sidenor jabe den Forjanorreko 57 langile greban egon dira. Langile eta enpresaren artean izandako elkarrizketak eman diren arren, ez dira akordio batera iritsi. Ondorioz, langi-

leek PRECORA joatea erabaki dute, arbitrai lanak honek egin ditzan. PRECOAK arrazoia emango dien esperantza dute langileek. Auzia erabaki bitartean lanera itzuli dira.



*Bi astetan greban egon ondoren lanera itzuli dira langileak, PRECOAK beraien alde egingo duenaren zai.*



**Instalazioak eta mantentze lanak**

24 orduko zerbitzua  
tel. mugikorra: 619692336  
tel: 789057-768025



ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel: 768078

# Zelan izan da labor-metraian grabaketia Elgetan?




Martxelo Rubio  
(35 urte) Aktorea

Esperientzia oso politta izan da eta batez be oso leku zoragarriak eza-gutu dittugu. Goizetan nahiko fresko egitten zeban baiña eguzkixa irtetzen zebanian oso ondo. Papel oso interes-garrixa daukat labor-metraian eta horrek lana gustora egittera bultzatzen dotzu. Arazo txiki bat dakan abade baten papela bete bihar dot.

Oso gustora nabil lan honekin ze, nere gustokua da eta hortarako ikasi dot. Gaiñera, holako herri baten grabatzia askoz polittaua da, leku ezberdiñak erakusteko modu oso ona da. Beti leku berdiñetan grabau biharrian oso interesantia da beste leku batzuk ezagutzia.

Jon Zubiaga  
(22 urte) Bihargiña



Mikel Antero  
(21 urte) Aktorea

Oso gustora nabil ze danok lagunak gara eta horrek asko laguntzen dau. Nere papela protagonista-ren lehengusuana da eta gaiñera oso bere-xixa da. Egiñ ditudan papeletatik oso desberdiña da. Elgeta lehenau ez neban ezagutzen, baiña zoragarri trau doskue bertan.

Egixa esanda, girua izugarri ona izan da jendian artian. Jonek gidoia emon zigunian buru belarri sartu giñan lanian "Hego Haizeakeko" lau lankideok. Ez dogu izan arazorik grabatzerako orduan eta oso gustora geratu gara egindako lanarekin, dudarik barik. Horrelako para-je ederrekin ziur nago labor-brumetri politta geldittuko dala.

Lurra Nikolas  
(31 urte) Teknikua



Ohana Martorena  
(18 urte) aktorea

Oso politta da esperientzi hau ze ekipuan bertan izugarrizko girua sortu da. Papela benetan bere-xixa da, 17 urteko neska baten papela daukat gaiñera bere aittak haurdun lagatzen daben neskatuana. Oso istorixo gogorra da.

Oso interesantia pen-tsatu jata labor-metrai hau. Ni neu egun baten bakarrik egon naiz lanian, baiña nik egin bihar neban lanerako ez dot euki arazorik. Lekua grabatze-ko oso aproposa izan da neretzat. Sonido aldetik, zarata pixka bat egon da baina bueno ... orokorrian gustora.

Migel Rodrighez  
(29 urte) Teknikua



Kartetan jokatzeko giro egokia

W.C.

Tel: 768093

Kopa bat

**P a t x i Taberna**

Aintzane denda  
zugandik gertu  
behar duzun  
beste



Domingo Iturbe 4-behea Tel: 943 768297



# Kaskajoen gozamenerako ...

Sekula baino eskaintza zabalagoa izan dute 2001eko Jaiek

## Eguena

Urtero legez, haurren pregoiarekin hasi ziren Elgetako jaiak. Gaztetxoek eta horren gazte ez direnak ere arratsalde aparta pasatzeko aukera izan zuten ostegun arratsaldean: gazteluan, motorretan... aurpegi alaiak ziren nagusi. Oraindik haurrak Jokulandian gora eta behera zebiltzanean lehenengo moztorroak agertu ziren plaza inguruan. Gehienak "elegante" jantzita, Jai Batzordeak eskatu bezala. Beste batzuk, berriz, lagun artean pentsatutako moztorroarekin. Euren artean, Euskal Herrikoa izan arren, Madril aldean arrakasta handia izan duen emakumea bere bihotzeko amarekin: Tamara. Euskaraz ikastera etorri al zen, akaso?



Urteroko afari herrikoiaren ostean, jaiiei hasiera ofiziala emateko ordua ere iritsi zen. Aurten gaztetxeko kideei tokatu zitzaizkien kaskajuei ongiatorria ematea. Festa hasita, drndots taldearen soinuak alaitu zuten gaueko lehenengo orduak. Egia esan gauen zehar zer nolako giroa izan zen ezin diezazuegu kontatu, izan ere Goibekokaleko lagun guztiok goiz-goiz joan baitgingen le egitera.



Berezitasuna.  
Buztana.  
Pintxo gozoak  
otartekoak.

**BOLATOKI**  
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

**Goio Sarasua**

Igeltzeritza lanak

Teilatuak  
Etxaurreak

Sukaldeak  
Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

**Barikua**

Etxafliruek eta kanpai hotsek eman zioten hasiera jubilatuen egunari. Hori gutxi ez balitz, esnatu ez ziren apurak La Ribera Cantako joterekin iratzartuko ziren! Harek bai ahotsak... eta edadetuak gustura oso. Arratsaldean zezanak. Han Marki nagusi! Salvador laga eta polikiroldegiak hartu zuen jaien protagonismoa. Jubilatuak bolar ziharduten bitartean, kanpoko kantxan Markeliñeren *Allo Europa* antzezlan. Ikusleak oso gustura hartu zuten antzerkia. Arrakastatsua oso. Gauean, berriz, kontzertuak plazan eta gaztetxean. Jende ugari MCD eta Nuevo Catecismo Catolicoren kontzertuan. Gero gertatu zenaz ezer gutxi dakigu. Etxera joan ginen lankide guztiok!

**Zapatua**

Osteguneko eta ostiraleko zikinak kentzeko Intxortara igoera. .... Iñakik bai sasoia! Korrikalariak aldatzen zeuden bitartean Marching Jazz Banden musika ibiltariak giro aparta ipini zuen herrian. Baina benetako ikuskizuna asto lasterketan egon zen. Han ere emakumeak nagusi. ikusgarria benetan Iratxe eta Arantxak eskaini zuten azken txanpa. Goibekokaleko foto-finish-a ez zen falta izan eta zeuok atera kontuak.

Arratsaldeko poteoa Mexikoko Real Santa Cecilia marietxien erritmoarekin egin zen. Ordurako herritarrak nahiko nekatuta zeuden arren, azkenengo traka falta zen oraindik: tanborrada. Han ere jende asko. Goizaldean, berriz, txorixua ere egon ei zen. Hala esan digute behintzat gure lagunek, gu ordurako etxean geunden eta!

**ELKORO TORLOJULANTEGIA****DEKOLETAKA ETA  
FIJAZIO SISTEMAK**

Berraondokua z/g 20690 Elgeta  
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)  
Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203

**IBAIBA-  
RRIAGA**  
GARRAIOAK

Tel: 768072  
Salvador zeharbidea 2  
ELGETA

**E  
HARATEGIA  
ASTI**

San Roke 6  
tel: 768168.



**Domeka**

Domekarako ere ez zegoen plan makala! Goizean-goiz ferixia ikusi ostean — ganadua ere egon zen—, lau t'erdiko finalak jokatu ziren. Partiduen ostean, eguerdiko txikiteoa egin eta bazkaltzera. Arratsalde partean beste kultura bateko dantzez gozatze-ko aukera, Andaluziakoak hain zuen. Iluntzean kontzertu bi baten: Deabruak, berriz ere taula gainean, eta Bide Ertzean. Sardinak dastatu eta jendea etxera erretiratu zen, jaiak luze egin ziren eta. Justu guaez ateratzea pentsatu genuen egunean!




**KONTXI  
ARRANDEGIA**  
Salbador 5 Tel: 768009

**SISTECO**  
**erraminta makina**  
Juan Luis Berechinaga  
Elgeta 20690 Pagatza Parke Ind. 2, B

**Hozkailuak eta  
izozkailuak  
aire giro-  
tua.**




Salbador 21  
Berraondokua 7  
Tel eta faxa: 78 90 46

Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.




tel: 768273



7  
L  
E  
A  
P  
A  
9  
N  
D  
E  
9  
9  
A

**M<sup>a</sup>  
ESTHER**  
Tel: 76 81 67

# Leizarentzat bigarren aldiz Elgetako lau t'erdiko txapelketa

Iñigo Leitzak lemoarraz irabazi zuen, Ander Agesta pilotari arantzarraren aurrean aurtengo Elgetako 23 urtez azpiko lau t'erdiko txapelketa. Partidak ordubete inguruko iraupena izan zuen eta azken emaitza 22-19koa izan zen. Partida gogorra izan zen batez ere frontoiko giro beroak eraginda, bero itzela egiten zuen barruan domeka goizean. Partiduaren irabaz-

lea bietako edozein izan zitekeen, baina Leitzak gehiago arriskatu zuen azken tantuetan eta ongi atera zitzaion. Txapelketa hau Leitzak eskuratzen duen bigarrena da. Duela bi urte ere irabazi zuen finala Murua-mendiarazen kontra, iaz berriz ezin izan zuen parte hartu lesio baten erruz.

Kadeteetan Mikel Gartzia mallabiarra izan zen ira-

bazlea. Honek, Oinatz Gonzalez andoaindarrari irabazi zion partida 22-16ko emaitzarekin. Gartziaren hasierako urduritasuna zela eta, partidarik zatirik gehienan Gonzalez aurretik joan arren, Gartzia arriesgatzen hasi eta guzita atera zitzaion arte. Gonzalez ezin izan zuen ezer egin, azken partzial izugarria eginenez 22ra iritsi zen bestea 16an geratuz.



Bi pilotariek leher eginda amaitu zuten.

## Gorka Verdugorentzat XVII. txirrindularitza mendi kriteriuma

Etxarri Aranazko txirrindulari hau izan zen 122 km-ak egiten azkarrena. Igande goiz euritsuan 120 txirrindularik eman zuten izena eta hauetatik 45ek lortu zuten helmugara iristea. Irabazleak azken momentuan hartu zien aurea Olarrako bi txirrindulariei. Helmugan 3 segunduko aldea atera zien. Leiakortasunaren saria Arreitunandiarentzat eta Langarika gaina saria Urretxuarentzat izan ziren. Xabier Aranguren ezin izan zuen lasterketa amaitu zulatu batek eraginda. Sailkapena: 1.goa G. Verdugo izan zen( Caja Rural) 3.13.55; 2.a I.Urretxua (Olarra); 3.a L. Euba (Olarra); 4.a F. Gutierrez (Baque); 5.a A. Rubio (Alcosto).



P. Arreitunandia  
I.Urretxua  
eta  
G. Verdugo  
podiumean.

### HAIZEA

### TABERNA



giro atsegina  
lagunartean  
egoteko.  
Tel: 768256



Jesús Mari Montiel  
**ITURGINTZA  
ETA BEROGAILUAK**  
Artekale 3.  
Mo: 656783299 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE  
ETA BAINUGELETAN**

# Elgetako areto futboleko txapelketa Vicios (Durangokoak) taldearendako

FO-FO-FO Bergarako futbol txapelketatik kanpo

Zapatu arratsalde euri-tzuan jokatu zen aurtengo areto futboleko txapelketaren azkena. Bertan alde batetik Txapela elgetarrak eta Vicios durangarrak zeuden. Partiduan zehar egon zen euri jasak etzien batere mesederik egin bi taldeei. Vicios taldea aurreratu zen partida hasi eta berehala. Bitartean

Txapelakoek hobeto jokatzen zuten baina ez zuten asmatzen ate aurrean. Aukera pila bat izan zituzten, baina ez ziren gai izan gola sartzeko. Azkenean kostata lortu zuten banako berdinketa. Partida amaitzeaz zegoela ere partidua irabazteko aukera ugari izan zituzten txapelakoek, baina minutu batean

Viciosekoek sarturiko bi golek merezi ez a r r e n azken markagailua 3-1ean utzi zuten.

Final ostean sari banaketak izan ziren. Aurtengo pitxitxia Komando



Elgetako taldea Angiozarkoen aurka jokatu aurretik.

Piperrak (Bergara) taldeko Jon Unamuno izan zen.

**Azken Laurdenetan FO-FO-FO kanporatua**

Urtero Bergaran jokatzen den Ipintzako futbol txapelketaren azken laurdenetan kanporatuak izan ziren elgetarrak. Final laurdenetan Angiozarko

taldea izan zuten aurkari. Partida gogorra izan zen Angiozarkoek defentsa gogorra erakutsi zuten. Angiozarkoek 2 gol sartu zituzten eta elgetarrek ezin izan zieten buelta eman. Elgetarren aukerak ere oso eskasak izan ziren porteria aurrean eta horrela partida bat irabaztea zaila da betiere.



Vicios talde irabazlea sari banaketa ondoren.

## Koldo Erostarbe Eibar B taldera

Azken denboraldia 3. mailako Bergarako taldean utzita egon ostean, Eibar taldeak bere bigarren talderako berreskuratu du. Denboraldi polita egin du Koldok Bergaran, ia partida gehienetan titular izan delarik. Txarrena, denboraldia ondo hasi arren Bergarak maila galdu duela. Eibar B taldea gogoratu 2.B mailan aritu dela azken bi urte hauetan.

**20 urterekin  
2.B mailara iritsi da Koldo.**



**EROSLE**

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

Tel: 76 81 31

M<sup>a</sup> Jesus Arrazola

**VIVO**

Janari

denda

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta  
Tel: 768050-789031 Faxes: 768243

**TAPEM, S.A.**

Trokelak eta estanzazioa  
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

# Gorka Igartua (Aktoria)

Udan ikastea tokatzen zaizu? Bai, urtian zihar ez dogu hainbeste ikasten eta irailian egin bihar.  
Txikitan zer nahi ziñuan izatia? Futbolista, baiña txarra nitzan.

Zure lanean asko ligatzen da? Nik? batez!  
Hasiberriakeko garagardoak debalde dittuk? Holako gauzei ez dotsagu inportantziarik emoten, han dare eta batzutan eran egitten doguz.

Lehenengo musua? Bai, gogoratzen naiz.  
Noiz egiñ ziñun azkenengo aldiz negar? Aittitta hil zanian.

Zer egiñ bihar da neska bat konkistatzeko? Ez dakit konkistatzen dittudan, baiña nik beti naizen modukua izaten saiatzen naiz.

Gustoko musikia? Asgarth taldiak egiten duen musikia.

Euskal Herriko jairik onenak? Elantxobekuak, dudarik barik.

Goroto duzun zerbait? Injustizia.

Zeñi izan da azkenengo erosi duzun diskoa? Azkenguana ez naiz gogoratzen ze azken aldixan grabatu egiten dittut.

Bizitzan beharrezkua da: Laguntasuna.

Zeñi jantziko zontzake elastiko horixa? Jon Andueziari.

Eta farolilloa? Mayor Orejari.

Larrua jo edo amodioa egin? Amodioa egin.

Amets bat? Euskal Herrian libre eta bakean bizitzea.

Bizitzeko leku bat? Elgeta oso politta da.

"GRAN HERMANO -ra presentatuko ziñan? Ez.

Zure defektu bat? Eta birtute bat? Asko. Lagunak beti lagun izatia.

Zeñi egiño zontzake belarritik tira? Tira egiten galezten doztanari.



Zer dozu gustoko emakumietan? Goxotasuna.

Nora egiño ziñuke bidaia bat? Nepal-era

Telefono mugikorrik erabiltzen dozu? Bai, amangaittik.

Eguneko momenturik onena? Illuntzia.  
Zenbat kafe hartzen dittuzu egunian buruan? Bat.  
Hasiberriakeko neskarik politxena? Danak orokorrian.

Zeñi abestuko zontzake kantu bat? Euskal Herrixai.





Argazkixa: Ana Begoña Sancho

## Aittak seme-alabekin

Elgetatik Arrasatera doian bidian, Joxe Arantzabalen zelaixan onduan ataratako erretratua da ale honetarako Ana Begoña Sanchok lagatakua.

1.968. urtian etarata dago erretratua. Herrixa atze moduan hartuta, erretratu politta atara zaben, herriko eta herrira udia pasatzera etortzen ziranetako aitta honek. Seme alabekin igo ziran zelairantz, bakoitzak beriak onduan hartu eta hainbeste maitte zaben herrixakin batera erretratua etartzeko. Herrixa bera aldatuta ikusi geinke, Salbador kaleko etxiak jasotzen ziharduten eta kanpandorreko erlojua be alde batera dago.

Lehenauko beraneantetik batzuk, ondio be etortzen dira herrira. Ia aurtengo abuztua uztailla baino hobia egitten dotsen. Goibekokaleko langillioak jai hartu bihar dogu iraillera arte. Hemen geratu ala urrin juan ia eguzkixa lagun daukauen.

Honek dira ale honetako erretratuan agertzen diranak.

**Ezkerretik eskumarantz: Jesus Markiegi, Juan Alberdi, Eduardo Sancho, ezezaguna, Anton Alberdi, Jose Luis Markiegi, Garbiñe Markiegi, Ana Begoña Sancho eta ezezaguna.**

# Aperribay, s.l.

*Marmoldegi eta granitoak*

Pagatza indus. z/g.

Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

## Jarri zure iragarkia


Tel.: 943.78.90.85



Euskaraz bizi  
nahi dugu baina...



gure esku dagoen  
dena egiten ote  
dugu ?



Goibeko Kultura Elkarteak  
euskaraz bizitzen lagunduko dizu.

Egin zaitez bazkide! Tel.: 943 789085